



EUSKADIKO EKONOMIAKO II. OLIMPIADA 2010ko APIRILAREN 23a

AZTERKETARI BURUZKO INFORMAZIOA

- Azterketak bigarren mailako batxiergoko “Ekonomia eta Enpresen Antolaketa”ri dagozkion bost galdera ditu. Hala ere, ikasleak gehienez hauetako bi galdera ordezkatzeko aukera izango du batxiergoko lehen mailako “Ekonomia” irakasgaiko 2 galderagatik
- Galdera bakoitzak 2 puntutako balioa du. Galdekizunaren ulermen gaitasuna eta erantzunetan arrazoiketa baloratuko da bereziki.
- Azterketaren iraupena ordu 2 eta 30 minututakoa da.

EKONOMIA ETA ENPRESEN ANTOLAKETA

1. GALDERA

AVIONIKASA hainbat markatako ibilgailuen xasisen egituren osagaiak fabrikatzen eta muntatzen dituen enpresa da. 2004tik 2007ra bitartean, enpresa oso bizkor hazi zen; 54 pertsonekin hasi zen, eta 2007. urte amaierarako 278 langile zituen. Denboraldi horretan, besteak beste, Renajult (Frantzia) edo Zeat (Espainia) etxeentzako osagaiak fabrikatu zituen. Eskariak hain ziren ugariak zuzendaritzak hiru txandatako ekoizpen-erritmoa ezarri zuela. Horrez gain, honako ezaugarri hauek biltzen zituen antolakuntza sistema ezarri zuen: (a) espezializazio handia, eginkizunen arabera; (b) aisialdi-denborak kentzea eta lana erabat arrazionalizatzea; (c) banakako emaitzetan oinarritutako ordainsaria; (d) banakako ekoizpenean oinarritutako pizgarriak; (e) erantzukizunaren deszentralizazioa.

2008. urte hasieran, ordea, gauzak erabat aldatu ziren. Krisia zela-eta, bezeroek erabilera anitzeko hornitzaileekin bakarrik lan egiten hasi, eta produktuen tirada txikiagoak eta forma-aukera zabalagoak eskaintzen hasi ziren. Enpresak produktuen tirada handiagoak fabrikatuta prezioak merkatzeko eta hitzartutako kalitatearen arabera, prezio baxuak eskaintzeko ospea zuen. Hornitzaileek tirada txikiagoak eta modelo gehiago egiteko eskatu zioten, autoen tirada txikiagoak fabrikatzeko.

Informazio honen arabera, ondorengo galdera hauek erantzun itzazu:

- 2008 baino lehen, zein da enpresak zuen lan-antolakuntza sistema? Bere egoera edozein dela ere, zein dira zure ustez sistema honek dituen antolakuntza arazoak?
- Antolakuntzari dagokionez, zein dira gaur egungo egoerak eskatzen dituen ezaugarriak? Ba al dago gaur egungo egoerarentzat baliagarriagoa den antolakuntza egituraren bat?



2 GALDERA

Testua *Capital*, (zk.: 112, orr.: 15-22) aldizkaritik hartu da. Ignacio eta Javier Perez Dolset anaiei eginiko elkarrizketa bat da. Zed Taldearen jabe eta arduradun nagusiak dira. Hiru sozietatez osatutako *holdinga* dute, eta mugikorretarako, Interneterako, bideojokoetarako eta animaziorako edukiak sortzen eta saltzen lan egiten dute. Hemen erakutsitako elkarrizketaren zatian, *Planet 51* pelikulak eskatu zuen inbertsioaz eta diru hori berreskuratzeko Zed Taldearen planez hitz egiten da.

“20 urtetan Planet 51ren txekeak kobratzen jarraituko dugu”.



du. Guztira, 400 pertsona eduki ditugu pelikulan lan egiten. [...] Eta asmatu dugu.

KRISIA DELA ETA, HERRIALDEAREN
ERDIA BERE BURUAZ ERRUKI DEN
BITARTEAN, PEREZ DOLSET ANAIEK
ESPAINIAKO ZINEMAKO PELIKULARIK
GARESTIENA SORTU ETA LEIHATILA
YANKIA BEREGANATU DUTE.

JORDI BENITEZ ETA RAFAEL PASCUAL

[...Aipatu gabeko atalak...]

Javier PD: Inbertsioa berreskuratzeko, beste salmenta-kanal batzuk ustiatu dira; batik bat, digitalak. Pelikula dirua lortzeko beste bide batzuk garatzeko aukera eman duen frankizia da. Esaterako, kontsoletarako eta Interneterako jokoak sortzea ahalbidetu



Pelikularen irabazien %60 kanal digitaletatik etorriko dela uste dugu, eta ez sarrearen salmentatik.

Capital: Noiz espero duzue dirua irabazten hastea?

Javier PD: Estreinaldiaz geroztik irabazten ari gara. Nazioarteko eskubide eta lizentzia guztiekin kostu guztiak estali ditugu jada. [...]

Ignacio PD: Nahiago dugu garrantzia sortzen dugun balioari ematea, eta ez diruari. Honelako pelikula baten abantaila zera da, 20 urte barru txekeak kobratzen jarraituko dugula. Ikus-entzunezko abangoardia teknologikoan kokatzeko eta produktuak kanal anitzetan ustiatzeko balio izan digu.

Capital: Berehalako mozkinak, pelikularen ustiapena Internet eta mugikorren bidez, bideojokoak, peluxeak... Argi dago industria zinematografiko nazionalari irakaspena eman dioten enpresariez ari garela.

[...]

'PLANET 51': HORRELA GARATZEN DA NEGOZIO ABERATS BAT

Pelikula garatzeko, Ilión-ek (Perez Dolset anaien estudioa) neurrira egindako 100 aplikazio baino gehiago garatu ditu. Horien artean, *Mask Creator* nabarmentzen da. Aurpegien animaziorako sistema bat da, eta ezinbestekoa pelikulako pertsonaien aurpegi bizi emateko. [...]

Enpresak 1.060 milioi euroko irabaziak espero ditu, guztira. Kopuru horretatik 600 leihatilatik, DVDtik eta telebistako emanaldietatik etorriko dira. Gainerakoa *merchandising*etik (100 milioi), Internetetik, mugikorretatik eta bideojokotik etorriko da. Hori gutxi balitz, produktu digital hauen abantaila handiena zera da, ustiapen tradizionalak baino tarte handiagoa eskaintzen dutela: edukiengatik jabetza intelektuala etxean gelditzen da. Ekoizpen-etxea leihatila edo DVDtik eskuratuko dituen irabazien %33arekin bakarrik geldituko bada ere, eduki digitalen bidez jasotzea espero dituen 250 milioien gehiengoarekin geldituko da.

[Artikuluaren amaiera]

Aurreko informaziotik beharrezkoa da nabarmentzea zinemaren industrian pelikula batek hiru eta bost aste artean iraun ohi duela leihatilan. Pelikula leihatilan estreinatu eta 5 hilabetera, DVD eta bideoklubek bidez hedatzen da, eta azkenik, telebistan ematen da; gutxi gorabehera, estreinalditik 11 edo 12 hilabetera. Azkenik, (gainerako) produktuen merkaturatzea edo *merchandising* gisa ezagutzen dena dator, alegia, elkarriketan 20 urtetan irabaziak jasotzen jarraituko dituztela aipatzearen arrazoia.

Aurreko informazioaren arabera, eta Pruduktuen Bizi-Zikloan (PBZ) oinarriturik, Planet 51-ko produktu multzoak izango duen forma mota azal ezazu, bere etapak bereiztuz. Teoriaz baliaturik, PBZ-ren irudia marraz ezazu, kasu berezi honetara egokituz



3. GALDERA

ERRIOXA

Langileen %90 kaleratzeko EEE Solarian

Fuenmayorreko lursailetan Electrolux-en jaraunsle den Solaria enpresak Enplegua Erregulatzeko Espedientea (EEE) aurkeztu duela jakinarazi die sindikatuei eta Lan Administrazioako Agintaritzari. Egun, 39 langile ditu enpresak eta langileen gehiengoak kaleratuko du.

CCOO sindikatuak komunikabide honi eskainitako datuen arabera, EEEK 34 langileri eragingo die hamar hilabetez. Enpresak eskualdeko Gobernuari «adarra jotzen diola» salatu zuten atzo sindikatuek. 2008an, gobernuak negoziazioak zuzendu zituen enpresak Electroluxek hutsik utzitako lursailak okupa zituzan. Oposizioaren arabera, eragiketa horretan diru asko inbertitu zen.

«Errioxako Gobernuak iruzur honen sirenen soinuekin engainatzen utzi da; Solariako zuzendaritzak asto herren eta itsua saldu dio» nabarmendu zuen atzo Pedro Soldevilla MCA-UGTko idazkari nagusiak.

Enpresa honek eguzki-plakak fabrikatzen ditu, eta duela bi urte, urte honen hasierarako 700 enplegu sortzeko industria-plana aurkeztu zuen. Inoiz ez ditu, ordea, 50 langile baino gehiago eduki. «Eta orain, EEE hau erloju-bomba bat izan daiteke erantsi zuen» Soldevillak.

«Zerbait okerragoaren hasiera»

Jorge Ruano CCOOko Metalaren Federazioko idazkari nagusia haratago joan zen: «Kezkagarria da Solariaren Puertollanoko plantan lana pilatzen zaien bitartean, Fuenmayorren ia ekoizpen-jarduerarik ez dagoela ikustea. Suposatzen da Errioxan instalatzearen arazoia ekoizpena banatzea zela; beraz, egoera honek zerbait okerragoaren hasiera izan daitekeela adierazten du».

Solariaren Gaztela-Mantxako plantak ere arazoak zituen. Iazko udan, 500 langiletatik 400i eragiten zien EEE aurkeztu zuen. Espedientea maiatzaren 31n iraungiko da. Hala ere, Ruanok komunikabide honi azaldutakoaren arabera, CCOO sindikatuak EEE hori berehala bertan behera uzteko eskatu du, «gaur egun planta hori lanez gainezka eta etengabe ekoizten dagoelako».

«Gutxi funtzionatzen du»

Javier Erro eskualdeko Gobernuako Industria kontseilariak, berriz, Fuenmayorreko plantak gaur egun «gutxi funtzionatzen duela» adierazi zuen. Erro Solariako zuzendaritzarekin bildu zen astelehenean, eta sindikatuei industria-plantaren egungo egoeraren emateko eskatu ziola azaldu zuen.

2006an Electroluxen irtete polemikoaren ostean, eta 2007an Rioja Sun Valleyk izan zuen porrotaren ostean, 2008an, eskualdeko Gobernuak Fuenmayorreko plantarako Solaria izeneko soluzioa iragarri zuen. Negoziazioen ostean, eta Pedro Sanz buru zela, Puertollanoko plantara Errioxako Gobernuaren bisita instituzionala eduki ostean, urte



horretako apirilean, behin betiko hitzarmena sinatu zuten Electroluxek, Gobernuak eta Solariak.

Laburki eta dagokion hutsunea erabiliz, irakurri duzun testuari buruzko ondorengo galderak erantzun itzazu:

- 1.- Zer da Enplegua Erregulatzeko Espediente (EEE) bat?
- 2.- Nork eman dio Enplegua Erregulatzeko Espedienteari hasiera? Ohikoa al da hau?
- 3.- Zein motatakoa da aurkeztutako Enplegua Erregulatzeko Espedientea? Zein dira mota honetako Enplegua Erregulatzeko Espedienteak dituen eraginak langileentzat?
- 4.- Lehen aldia al da Solaria enpresak Enplegua Erregulatzeko Espedientea aurkezten duela?



5.- Zure ustez, zergatik ez dago CCOO ados ekoizpen-jardueraren banaketaren arloan Solaria enpresak izan duen jokabidearekin? Zein dira martxan jarriko dituen ekintzak horren ondorioz?

6.- Zure ustez egokia al da Solaria-Fuenmayor enpresak Enplegua Erregulatzeko Espedientea aurkeztea? Zergatik?



4 GALDERA

PIPA Sozietate Anonimoa, enpresa txiki kalifikatuta dago eta industriarako ordezkopiezen ekoizpenean dihardu.

Ekitaldi honetan ondorengo sarrera eta gastuak izan ditu:

SARRERAK

-Produktu bukatuen salmentak	435.000
-Duela urte bat erositako obligazioen interesak	12.000
-Z Sozietatean partaidetzagatik dibidenduak	7.500
-Ibilgetuaren elementu baten salmentagatiko sarrera (elementua duela 2 urte eskuratu zen 65.000 eurotan)	80.000

GASTUAK

-Lehengaiak	126.000
-Jarduera garatzeko erabiltzen duen pabilioaren alkilerra	24.000
-Mailegu baten itzulketa	36.000
-Interesak	16.500
-Tronkoa	19.500
-Soldatak eta Alokairuak	94.000

Ekitaldiaren hasieran 56.000 eurotako izakinak zituen eta ekitaldiaren amaieran izakinen balioa 48.000 eurotakoia izan da.

ZERA ESKATZEN DA:

- PIPA Sozietatearen zerga aurreko eta zerga ondorengo mozkinak kalkulatu ezazu, eta ordaindu beharrezko mozkinen gaineko zerga ere.
- Ariketa honetan zerga bat osatzen duten elementu ezberdinak identifika eta defini itzazu
- Sozietatearen mozkinen gaineko zerga, zerga zuzena al da? Zergatik?





5. GALDERA

"FS S.A."
BALANTZEA (Mila Euro; 20XX Ekitaldi-itxierako Datuak)

AKTIBOA			ONDARE GARBIA eta PASIBOA		
	2009	2008		2009	2008
AKTIBO EZ-KORRONTEA	60.564.-	57.598.-	ONDARE GARBIA	9.213.-	13.123.-
Ibilgetu Ukiezina	2.960.-	3.459.-	<i>FONDO PROPIOAK</i>	9.213.-	13.123.-
Ibilgetu Materiala	54.950.-	51.630.-	Kapitala	¿?.-	¿?.-
Epe Luz. Finantza-inbertsioak	2.654.-	2.509.-	Erreserbak	4.517.-	4.517.-
AKTIBO KORRONTEA	44.208.-	44.237.-	Aurreko Ekitaldiet. Emaidza Negatiboak	(11.076.-)	(5.337.-)
Izakinak	42.728.-	41.092.-	Ekitaldiko Emaidza	¿?.-	¿?.-
Bezeroak	135.-	196.-	PASIBO EZ-KORRONTEA	54.903.-	55.489.-
Bestelako Zordunak	116.-	803.-	Epe Luzeko Zorrak	54.903.-	55.489.-
Epe Lab. Finantza-inbertsioak	18.-	1.343.-	PASIBO KORRONTEA	40.656.-	33.223.-
Diruzaintza	1.211.-	803.-	Epe Laburreko Zorrak	21.697.-	2.698.-
AKTIBOA GUZTIRA	104.772.-	101.835.-	Hartzek. Komertzialak (Hornitzaileak)	12.044.-	23.971.-
			Hainbat Hartzekodun	6.915.-	6.554.-
			TOTAL PASIVO	104.772.-	101.835.-

"FS S.A."
GALDU-IRABAZIEN KONTUA (Mila Euro; 20XX Ekitaldi-itxierako Datuak)

	2009	2008
A) ERAGIKETA JARRAITUAK		
1.- Negozio-zifraren zenbateko garbia (Salmentak)	121.203.-	119.169.-
4.- Hornikuntzak	(75.910.-)	(77.224.-)
5.- Ustiapeneko bestelako sarrerak	484.-	689.-
6.- Pertsonal-gastuak	(19.659.-)	(18.659.-)
7.- Ustiapeneko bestelako gastuak	(21.660.-)	(20.091.-)
8.- Ibilgetuaren amortizazioa	(5.658.-)	(6.255.-)
= USTIAPENEO EMAITZA	(1.200.-)	(2.371.-)
12.- Sarrera finantzarioak	14.-	148.-
13.- Gastu finantzarioak	(4.354.-)	(3.516.-)
= EMAITZA FINANTZARIOA	(4.340.-)	(3.368.-)
= ZERGA AURREKO EMAITZA	(5.540.-)	(5.739.-)
17.- Mozkinen gaineko zergak	- - - - -	- - - - -
B) ETENAKO ERAGIKETA		
= EKITALDIKO EMAITZA	(5.540.-)	(5.739.-)

ESKATZEN DA:

1.- Balantzea osatzea.

2.- Ekitaldi bietarako Maniobra Fondoa kalkulatzea. Lortutako balioen esanahia, eta aldaketarena, azal ezazu.

3.- Ekitaldi bietarako Epe Laburreko Kaudimena kalkulatzea. Esanahia azal ezazu eta aldaketaren zergaitiak justifika itzazu.

4.- Ekitaldi bietarako Berme- ratioa (Kaudimen Osoaren ratioa) kalkulatzea. Esanahia azal ezazu eta aldaketaren zergaitiak justifika itzazu.






EKONOMIA

1 GALDERA

Ondorengo grafikoan eremu geografikoen arabera Barne Produktu Gordinaren hazkundeak (%etan) agertzen dira, 2008 eta 2009 urteetarako.



- Nola kalkulatzen da Barne Produktu Gordina gastuaren eredua erabiliz?
- Grafikoan ez da zehazten Barne produktu Gordina termino korranteetan ala konstanteetan neurtuta dagoen. Bi neurri horien arteko ezberdintasuna azal ezazu.
- Aldagai baten hazkunde tasa defini ezazu. Zer adierazten du Errusiako BPG-ren hazkunde tasa 2008 urtean %6,2 izatetik 2009 urtean %-0,7 izatera pasatzeak?
- Urte berdinean herrialde ezberdinetako hazkunde tasak konparatzeko, baliokidea al da BPG nominala ala BPG erreala erabiltzea? Eta herrialde bateko 2008 eta 2009 urteetako hazkunde tasak konparatzeko? Zein erabiliko zenuke kasu bakoitzean? Zergatik?





2. GALDERA

FED-EK GORDAILUAK ORDAINDUKO DIZKIE BANKUEI LIKIDEZIA LORTZEKO

France Press / elEconomista.es

2009/12/28 - 21:19

AEBko Erreserba Federalak (FED) bankuetarako eperako ordaindutako gordailuak sortuko dituela iragarri zuen astelehenean. Politika monetarioko tresna berri honen bidez, erakunde batzuek pilatutako erreserba soberakindunen fluxua erregulatuko da.

Hau pauso bat gehiago izango da FEDen irtete-estrategian. Hala, ezohiko planekin zirkulazioan jarri diren dirutzak ekonomiara itzultzen saihestea du helburu. Horretarako, bankuak sustatu nahi ditu, dirua banku zentrolean utz dezaten.

Erakundeak azaldu bezala, gordailu horien sorkuntzak likidezia sortzeko tresna bat gehitzea dakar, eta ez du inplikaziorik epe laburreko politika monetarioarekin.

Jakina zen neurri hori etorriko zela. Izan ere, Ben Bernanke erakundeko presidentea eta FEDeko beste kide batzuek une egokia zenean gordailu horiek sortuko zirela aurreratu zuten. FEDek prentsa-ohar baten bidez, tresna hori arautzeko proposamen bat aurkeztu zuen. Bertan jasotakoaren arabera, kontsulta publikoen ostean, indarrean sartuko zela iragarri zuen.

“Proposamen honen barruan, Erreserba Federaleko bankuek epera ordaindutako gordailuak eskainiko dizkie erakundeei, interes-tasekin, enkante-mekanismo baten bidez” zehaztu zuen FEDek.

2008ko urriaz geroztik, FEDek erreserba horiek ordaintzen ditu (derrigorrezkoak eta soberakindunak), interes mota ofizialen arabera tasa batekin. Gaur egun, tasa hori oso txikia da.

Proposamen xehatuan, FEDek interes-tasa enkante-prozesuaren bidez zehaztuko zela jakinarazi zuen. Eperako gordailuen heldutasunak ez du urtebeteko epea gaintutuko.

Aurreko albistea irakurri ondoren ondorengo galderak erantzun itzazu:

- Albistearen testuinguruan, likideziaren kontzeptua defini ezazu
- Zer dira erretserbak?





